

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MOXALEN OINARRIZKO HEZIKETA-PROZESUA ZALDI-AZIENDAN	Iraupena	90
		Espezifikoa	
Kodea	UF0377		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Moxalen oinarrizko heziketa eta jolas-, lan- eta kirol-helburuetarako, eta erakusketetan eta/edo lehiaketetan aurkezteko zaldien maneia gainbegiratzea.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta/edo lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren kontrola.	Iraupena	40
	Zaldi-aziendaren elikadura eta maneio orokorra oinarrizko heziketan eta zaldi-jardueretan parte hartzen dutenean.		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0535_3 JOLAS-, LAN- ETA KIROL-HELBURUETARAKO, ETA ERAKUSKETETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN AURKEZTEKO ZALDIEN OINARRIZKO HEZIKETA-LANAK ETA MANEIOA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Aurrerakoen hazkuntza moxalen banantzea eta otzantzea planifikatzea eta kontrolatzea, horren ondoko heziketa ahalbidetzeko.
- EI1.1 Aurrerako moxalak banantzeko eta otzantzeko lan-plan egoki baten programazioa egitea.
 - EI1.2 Moxalak banantzearen eta otzantzearen fase bakoitzean jarraitu beharreko jardun-jarraibideak zehaztea.
 - EI1.3 Moxalak banantzean eta otzantzean erabiltzen diren instalazioen, materialen eta ekipamenduen ezaugarriak eta erabilera-moduak definitzea.
 - EI1.4 Ondoko heziketan erabiliko diren ekipamenduak jartzeko eta egokitzeko lanekin hasteko aurrerako moxalei eskatzen zaizkien ezaugarri morfologikoak eta portaerazkoak atzematea.
 - EI1.5 Moxalen ezohiko portaerako egoerak identifikatzea banantzean eta otzantzean zehar, eta, beharrezkoa izanez gero, maneio-neurri espezifikoak aplikazioa balioestea.
 - EI1.6 Sokaz lagundutako heziketa-lanak hasi aurretik, moxalek izan behar duten egokitzapen-maila eta menderatzea balioestea eta baloratzea.
 - EI1.7 Moxalen otzantzearen kontrolerako eta jarraipenerako beharrezko fitxak lantzea eta betetzea.
 - EI1.8 Aurrerako moxalen banantze- eta otzantze-jardunetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A2: Otzandutako moxalen soka-bidezko heziketa-lanak programatzea eta fase bakoitzean ekipamendu eta teknika egokiekin egiten direla gainbegiratzea.
- EI2.1 Otzandutako moxalen soka-bidezko lanerako lan-plan egoki baten programazioa egitea.
 - EI2.2 Soka-bidezko heziketa-lanak hasteko, otzandutako moxalei eskatzen zaien portaera eta menderatze-maila balioestea.
 - EI2.3 Otzandutako moxalen soka-bidezko lanaren faseetan erabili beharreko teknika azaltzea, eta fase bakoitzean lortu beharreko helburuak definitzea.
 - EI2.4 Moxalen soka-bidezko heziketan erabiltzen diren instalazioen, materialen eta ekipamenduen ezaugarriak eta erabilera-moduak definitzea.
 - EI2.5 Soka-bidezko heziketa-lanarekiko moxalen egokitze-maila baloratzea, eta ezohiko portaerako egoerak identifikatzea, maneio-neurri espezifikoak aplikatzeko aukera aintzat hartuta, beharrezkoa izanez gero.
 - EI2.6 Zaldizkoa gainean jartzeko lanak hasi aurretik, moxalek izan behar duten soka-bidezko heziketa-maila balioestea.
 - EI2.7 Moxalen soka-bidezko heziketaren kontrolerako eta jarraipenerako beharrezko fitxak lantzea eta betetzea.
 - EI2.8 Otzandutako moxalen soka-bidezko heziketa-lanetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A3: Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hastea planifikatzea eta gainbegiratzea, oinarrizko heziketa egoki bat osatzeko.
- EI3.1 Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasteko lan-plan egoki baten programazioa egitea.

- EI3.2 Zaldizkoa gainean jartzen hasteko, soka-bidez hezitako moxalei eskatzen zaien portaera eta menderatze-maila balioestea.
- EI3.3 Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasteko faseetan egin beharreko teknikak eta ariketak zehaztea, fase bakoitzean lortu beharreko helburuak definituz.
- EI3.4 Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasteko erabiltzen diren instalazioen, materialen eta ekipamenduen ezaugarriak eta erabilera-moduak definitzea.
- EI3.5 Moxalen ezohiko portaerako egoerak identifikatzea zaldizkoa gainean jartzen hasten denean, eta, beharrezkoa izanez gero, maneiu-neurri espezifikoaren aplikazioa balioestea.
- EI3.6 Zaldizkoa animalien gainean jartzeko lana behatu ondoren, oinarrizko heziketa amaitutzat emateko maila egokia lortu ote duten balioestea.
- EI3.7 Zaldizkoa moxalen gainean jartzeko lanaren kontrolerako eta jarraipenerako beharrezko fitxak lantzea eta betetzea.
- EI3.8 Zaldizkoa moxalen gainean hartzen hasteko lanetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

1. Moxalen morfologia azken garapen-fasean.

- o Kanpoaldearen itxura orokorra.
- o Nabarmendu beharreko gorputz-atalak: garapen-maila, zona sentikorrek, akatsak eta tarak.
- o Behin betiko ilajeak eta ileak: kolorazioak eta berezitasunak.
- o Azken garapen-faseko moxalen ezaugarri morfologiko bereizgarriak zaldi-arraza nagusietan.

2. Zaldiaren lokomozioa eta motrizitatea.

- o Zaldiaren mugimenduaren funtsezko kontzeptuak: irekitasuna, kadentzia, esekidura, goratzea, orekak, koordinazioa, etab.
- o Zaldiaren aire naturalen azterketa: pausoa, trosta eta galopa.
- o Zaldiaren mugimenduko akatsen azterketa: pauso laua edo ibilera, trosta zatitua, galopa askatua, atzera jotzea, zutitzea, ostikoak, saltoa, arraitasuna, etab.
- o Geldi dagoen zaldiaren jarrerak: karratua, kokapena, bilketa, etab.

3. Moxalak banantzea eta otzantzea.

- o Aurrerako moxalak otzantzeko banantzea baldintzatzen duten jarraibideak: animalien arraza eta adina. Ezaugarri morfologiko, osasun eta egoera fisiko egokiak.
- o Moxalen otzantzerako banantze-teknikak: irizpideak eta estabulazio-moduak.
- o Moxalen maneiu espezifikoak otzantzean zehar: animalien bakarkako maneiu-protokoloa. Otzantzeko eta menderatzeko teknikak.
- o Moxalak banantzeko eta otzantzeko erabilitako instalazioak, materialak eta ekipamenduak: ezaugarriak. Erabilera-moduak eta egokitzapena.
- o Aurrerako moxalen jokabide normalak otzantzearen ondoren eta heziketa hasi ondoren.
- o Aurrerako moxalen ezohiko portaeren kasuak otzantzearen ondoren eta heziketa hasi ondoren: akatsak, ohitura txarrak eta izan daitezkeen zuzenketak.
- o Moxaletan otzantze eta menderatze nahikoa adierazten duten faktoreak: azterketa eta balioespena.

4. Moxalen soka-bidezko heziketa.

- o Moxalen soka-bidezko heziketarekin hasia baldintzatzen duten jarraibideak: animalien arraza eta adina. Menderatze-maila. Osasun eta egoera fisiko egokiak.
- o Moxalantzako soka-bidezko irakaskuntza- eta ikaskuntza-teknikak: Moduak eta iraupen-denborak.
- o Moxalen soka-bidezko lanean erabilitako instalazioak, materialak eta ekipamenduak: ezaugarriak. Kokatzeko moduak, erabilera-moduak eta egokitzapena.
- o Moxalen jokabide normalak soka-bidezko lanean zehar.
- o Moxalen ezohiko portaeren kasuak soka-bidezko lanean zehar: akatsak, ohitura txarrak eta izan daitezkeen zuzenketak.
- o Moxalen soka-bidezko lan egoki bat adierazten duten faktoreak: azterketa eta balioespena.

5. Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasia.

- o Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasia baldintzatzen duten jarraibideak: animalien arraza eta adina. Soka-bidezko heziketa-maila. Osasun eta egoera fisiko egokiak.
- o Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasteko teknikak: Moduak eta iraupen-denborak.
- o Zaldizkoaren laguntzak gainean jartzeko: laguntza naturalak eta artifizialak.
- o Zaldizkoa moxalen gainean jartzen hasteko erabilitako instalazioak, materialak eta ekipamenduak: ezaugarriak. Kokatzeko moduak, erabilera-moduak eta egokitzapena.
- o Moxalen jokabide normalak zaldizkoa gainean jartzen hasten denean.
- o Moxalen ezohiko portaeren kasuak zaldizkoa gainean jartzen hasten denean: akatsak, ohitura txarrak eta izan daitezkeen zuzenketak.
- o Moxalen oinarrizko heziketa-maila adierazten duten faktoreak: azterketa eta balioespena.

6. Zaldi-aziendako moxalen oinarrizko heziketarekin lotutako araudi erregulatuak.

- Ingurumen-babesa
- Lan-arriskuen prebentzioa
- Animalien ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza